



**ARRATIAKO UDALEN**  
**MANKOMUNITATEKO**  
**IRAUNKORTASUNERAKO**  
**EKINTZA:**  
**ARRATIA 21**



## **Aurrekariak:**

2003. urtetik hona, iraunkortasunaren aldeko apustua abiarazi zuten Arratiako udalek, eta 2005ean Tokiko Agenda 21en lehen tokiko ekintza planak onetsi zituzten. Udalerri guztiek ingurumena, ekonomia eta gizartea hobetzeko bidean aurrea egitea hitzartu zuten, eta bat egin zuten UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarearekin.

Udalerri bakoitzak bere erritmoan abiarazi du bere tokiko ekintza plana, baina azken urteetan ikusi denez, haien eskumen eskusibokoak ez ziren eremuak zehaztaperen maila nahikoa izan barik gelditu ziren eta horrek planen garapena zaildu du. Horrengatik guztiagatik, horrelako jarduketak motak bultzatu beharko liratekeela iritzi zitzaion. Horretarako, haien eskumenerako arlo guztiak zehaztu, planifikatu, programatu, garatu eta ebaluatu behar ziren (ongizatea, ingurumena, komunikazioa eta sentsibilizazioa, berdintasuna, energia, etab. eta iraunkortasuna oro har).

2012an, Mankomunitatearen Agenda 21en Ekintza Plana egiteko prozesua hasi zen, **"ARRATIako UDALen MANKOMUNITATEko IRANKORTASUNeko EKINTZA PLANA:ARRATIA 21"** izenekoa.

"Arratiako Udalen Mankomunitatearen Tokiko Agenda 21en Ekintza Planaren Diagnostikoa" eginda eta "Esku hartzeko lehentasuneko eremuak" ezarrita, Ekintza Planaren Zirriborroa egin zen, non Mankomunitateko arlo eta zerbitzu guztiek hartu duten parte, eztabaida eta gogoetarako hasierako dokumentu gisa. 2013ko amaieran aurkeztu zen.

Udalek alegazioak, iradokizunak eta proposamenak aurkezteko epea ezarri zen, eta horiek guztiak behin betiko dokumentuan kontutuan hartu dira ondoren onetsiak izateko.

Mankomunitatearena da Ekintza Plana; izan ere, Arratiako udalek eskuordeturiko eskumenak kudeatzen dituen erakundea da. Arratiako Udalen Mankomunitatearen Ekintza Planean, Mankomunitateak bere ahalmena eta eskumenak ahalik eta ondoen garatzeko zelan jokatu behar duen planteatzen da eta, hala denean, iraunkortasun irizpideak ezarrita.

Arratiako Udalen Mankomunitatearen Ekintza Planak, "ARRATIA 21" delakoak, Arratiako udal guztietan onetsitako tokiko ekintza planetan onetsitako helburu estrategikoak, helburu espezifikokoak eta ekintzak eta jarduketak bildu nahi ditu, Mankomunitatearen eskumena direla-eta nahikoa zehaztuta eta garatuta ez daudelako. Mankomunitatearen beraren eginkizuna da horiek guztiak lehenestea, planifikatzea eta garatzea.

Bereziki hartu dira erreferentziatzat tokiko ekintza planak berrikusten eta berritzen jarraitu duten udalak, gaurko garaira egokitzeko eta, gainera, epe luzeagorako ikuspegia izanik (8-10 urte): aurreko ekintza planetan kontuan hartu ez ziren edo nahikoa zehaztuta agertzen ez ziren arlo tematikoak sartuta (klimatearen kontrako borroka, berdintasuna, gizarte eta ekonomia arloak, etab.). Horiek ekintza plan berri guztiak herritarren partaidetzarako prozesu garrantzitsuen bidez gauzatu dira, ikuspegi estrategikoarekin gainera.

Bestalde, kontuan izan dira Mankomunitatearen barruan aurretik eginiko lanak, azterlanak eta gogoeta estrategikoak, baita egungo tokiko ekintza planen ikuspuntuak, helburuak eta xede orokorrak ere.

## • **1.- HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA IRAUNKORRA**

### ▪ **1.1.- Hiri-hondakinen sorrera murriztea**

- **1.1.1.- Hiri-hondakinak murrizteko neurri berriak ezartzea eta hondakinen sorrerako prebentzioa indartzea, bai tokiko administrazioan, bai sektore sozial eta ekonomiko desberdinetan.**
  - Denda eta zentro publikoetan hondakinen ikuskaritzak egitea.
  - Hiri-hondakinen berrerabilpena sustatzea:
    - Bulegoaren papera berrerabiltzea administrazioan.
    - Bigarren eskuko salmenta eta trukerako Arratiatruke webgunea mantentzea.
    - Bigarren eskuko eta trukerako azokak egitea.
  - Mankomunitateko berezko hondakinen prebentzio-kanpainak, hondakinen kudeatzaile desberdinekin lankidetzan (Rafrinor, Ecovidrio, Ecoenves, Garbiker, etab.).

### ▪ **1.2.- Hiri-hondakinen bilketa selektiboa hobetzea**

- **1.2.1.- Puntu Berdearen edo Irla Ekologikoaren eredia ezartzea, bai hiriguneetan, bai landaguneetan.**
  - Landaguneetan edukiontzi-parkea birdimentsionatzea eta egokitzea.
  - Hiriguneetan edukiontzi-parkea birdimentsionatzea eta egokitzea.
- **1.2.2.- Beharrezko azpiegitura eta ekipamenduak jartzea hiri-hondakinen bilketa selektibo egokirako.**
  - Hondakinen frakzio desberdinetan bilketa selektiborako edukiontziak erosi edo jartzea.
  - Edukiontzi-parkea mantentzea (lurperatutakoak eta kanpokoak).
  - Edukiontziak berrezartzea.
  - Hondakinen bilketa selektiborako ibilgailuak erostea.
  - Albo-kargako kanpo-edukiontzietan bilketa selektiboa sustatzea.
  - Lurperatutako edukiontzien gaineko hausnarketa tekniko eta politikoa egitea (gainerako bilketa-sistemekiko bateragarritasuna, bideragarritasun ekonomikoa, erabileren egokitzapena, etab.).
- **1.2.3.- Hiri-hondakinen frakzio desberdinak biltzeko maiztasunak egokitzea.**

- Hondakinen frakzio desberdinak biltzeko maiztasunak optimizatzea.
- Edukiontzi zuriko bilketa-maiztasunak egokitzea.

### ▪ **1.3.- Hiri-hondakinen kudeaketa eta tratamendu iraunkorra**

- **1.3.1.- Aurretiazko tratamendurik gabeko hondakinen 0 isurirantz aurrera egitea.**
  - Garbiker-ekin koordinazioan aritzea, Igorreko hondakinen transferentzia-zentro berria era egokian erabiltzeko.
  - Hondakinen frakzio desberdinen tratamenduaren jarraipena Bizkaia eta EAE mailan.
- **1.3.2.- Hiri-hondakinen materia organikoaren kudeaketa integrala eta tratamendu egokia ezartzea.**
  - Edukiontzi marroia biztanleria osoarengana hedatzea hiriguneetan.
  - Landaguneetan eta familia bakarreko etxebizitzetan etxeko konpostajea sustatzea.
  - Ikastetxeetan konpostajea sustatzea.
  - Udaleko lorategien indusketa eta hondakinak era egokian kudeatzea.
- **1.3.3.- Selektiboki jasotako hondakin-kopuruaren jarraipena eta kontrola.**
  - Datuak aztertu eta jakinaraztea.
  - IGSen erabilera, hondakinen kudeaketa hobetzeko: bilketa-puntuaren inbentarioa, kokapena eta egoera, argazkiak, zerbitzua, eta abar.
- **1.3.4.- Hondakinen bilketaren ibilbideak egokitzea/optimizatzea.**

### ▪ **1.4.- Hiri-hondakinen gaineko ordenantzak eta zerga-sistema eguneratzea**

- **1.4.1.- Hiri-hondakinen gaineko ordenantza berria egitea.**
  - Udalsarea 21eko hondakinen gaineko Ekitaldi 21ean parte hartzea.
  - Hiri Hondakinen Ordenantza berria egitea.
  - Ordenantzetan hiri-hondakinak murrizteko pizgarriak sartzea eta bilketa selektiboa areagotzea, batez ere materia organikoan (edukiontzi marroia eta etxeko konpostajea): tasak egokitzea, eta abar.

## ▪ **1.5.- Hiri-hondakinen gaineko sentsibilizazioa**

- **1.5.1.- Urtero hondakinen gaineko sentsibilizazio-kanpainak garatzea eskualdeko sektore sozial eta ekonomiko desberdinei zuzenduta.**
  - Kanpainak ikastetxeetan.
  - Dendei eta ostalaritzari zuzendutako kanpainak.
  - Orokorrean biztanleriari zuzendutako kanpainak.

## ▪ **1.6.- Hiritarren erantzukidetasuna hiri-hondakinak sortu eta bereiztean.**

- **1.6.1.- Biztanleriaren ohituretan jarrera positiboak fidelizatu eta indartzea, hondakinen sorrera eta bereizketa egokiaren gainean.**
  - Hondakinen bilketa selektiboa sustatzeko materialak jartzea: kuboak, poltsak, giltzak eta abar.
- **1.6.2.- Kontsumo-ohitura arduratsuak sustatzea.**
  - Tokiko merkataritza sustatzea.
  - Tokiko produktuen eta denboraldi-produktuen erosketa sustatzea.
  - Bilgarri gutxien dauzkaten produktuen erosketa sustatzea.

## • **2.- ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN HOBEKUNTZA**

### ▪ **2.1.- Egitura energetiko iraunkorragorantz aurrera egitea**

- **2.1.1.- Eraginkortasun energetikoko eredurantz aurrera egitea, kanpoko mendekotasun-maila eta erregai fosilen nahiz lotutako negutegi-efektudun gas-isurien erabilera murrizteko eta klima-aldaketaren aurkako borrokan konprometitzeko asmoz.**
  - Lan-taldeetan parte hartzea, bilera, hitzaldi eta abarretara joatea, klima-aldaketaren aurkako borrokarekin lotuta.
  - Klima-aldaketaren aurkako borrokaren ezagutzak eta esperientziak hedatzea.
- **2.1.2.- Ibilgailuaren erabilera partekatua eta garraio publikoa sustatzea.**
  - Areatzako Auzokar zerbitzua (ibilgailuen udal-alokairua) hedatzeko edo antzekoak sortzeko aukera aztertzea.
  - Biztanleriak kotxea partekatzeko eta garraio publikoko ibilbideak ikusteko webguneetarako duen sarbidea erraztea (Moveuskadi, Bidekide, etab.).

### ▪ **2.2.- Energia berriztagarrietatik datorren energiaren erabilera eta ekoizpena areagotzea**

- **2.2.1.- Iturri berriztagarrietako energiaren (biomasa, fotovoltaikoa, minihidraulikoa, minieolikoa, etab.) erabilera eta ekoizpena sustatzea.**
  - Tokiko administrazioan.
    - Udal-eraikinetan biomasa erabiltzeko proiektu berriak garatzea.
    - Eremu honetan enplegu berdea sustatzea.
  - Egoitza-sektorean.
    - Biztanleriari energia berriztagarrien eremuko laguntzei buruzko informazioa ematea.
  - Merkataritza eta enpresen sektorean.
    - Sektore ekonomikoei energia berriztagarrien eremuko laguntzei buruzko informazioa ematea.
    - Eremu honetan enplegu berdea sustatzea.

## ▪ **2.3.- Tokiko administrazioko kudeaketa energetikoa hobetzea**

- **2.3.1.- Eraginkortasun Energetikoaren Bulego mankomunatua indartzea.**
  - Eraginkortasun energetikoa etengabe hobetzeko kanpo-aholkularitza.
  - Eraginkortasun energetikoaren gaineko prestakuntza etengabea.
  - Jarduerak garatzeko aurrekontu-hornidura egokia (neurketa-ekipoak erostea, etab.).
  - Udal-kontsumo energetikoen jarraipena eta aldizkako txostenen prestaketa.
  - Aurrezteko aukera duten instalazioetan energia-kontsumoa monitorizatzea.
- **2.3.2.- Herri-argiteria mantentzeko zerbitzua hobetzea.**
  - Kanpoko herri-argiteria mantentzeko lanak kontrolatu eta jarraipena egitea.
  - Kanpoko argien inbentarioa eguneratzea.
  - Prebentziorako mantentze-jarduerak programatzea.
- **2.3.3.- Udalei eraginkortasun energetikoko aholkularitza eskaintzea.**

## ▪ **2.4.- Udaleko eta mankomunitateko ekipamendu eta zerbitzuetan kontsumo energetikoa hobetzea**

- **2.4.1.- Udal-ekipamenduen eta herri-argiteriaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko bidean aurrera egitea.**
  - Udal-eraikinetan eta herri-argiterian ikuskaritza energetiko zehatzak egitea.
  - Udal-eraikinetan energia eraginkortasunerako eta energia aurrezteko neurriak ezartzea.
  - Herri-argiterian energia eraginkortasunerako eta energia aurrezteko neurriak ezartzea.
    - Herri-argiteriako instalazioen ordez apurka-apurka energetikoki eraginkorragoak diren beste batzuk jartzea (LED teknologia, telekudeaketa, etab.).
- **2.4.2.- Udal Plan Estrategikoa (UPE) eta Eskualdeko Plan Energetikoa egitea.**

- Arratiako udalerrri guztietarako Udal Plan Estrategikoak egitea.
  - Arratiako udal guztietarako eraginkortasun energetikoko neurriak garatu eta programatzea, UPEetan oinarrituta.
  - Proiektuak garatzeko finantziazioa bilatzea.
- **2.4.3.- Alkateen Ituna sustatzea eta Energia Iraunkorreko Ekintza Planak (EIEP) garatzea.**
    - Areatzako EIEPen jarraipen eta garapenerako lankidetzak eta laguntza teknikoak.

## ▪ **2.5.- Eraginkortasun energetikoaren gaineko sentsibilizazioa**

- **2.5.1.- Sektore sozial eta ekonomiko desberdinak sentsibilizatzea, energiaren aurrezkia eta arrazoizko erabilera sustatzeko, batez ere egoitza-sektoreari zuzenduta.**
  - Eraginkortasun energetikoaren eremuan sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- **2.5.2.- Etxe Berdeen esperientzia (etxebizitzaren ikuskeraren energetikoak) eskualde-mailan hedatzea interesgarria litzateke; egoitza-sektoreari hedatzeaz gain, merkataritza, ostalaritza, zerbitzu eta eraikin publikoetara zabaltzea.**



- **3.- HIRITARREN INFORMAZIO, KOMUNIKAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA PARTAIDETZA HOBETU ETA EGOKITZEA**

- **3.1.- Arratiako Udalen Mankomunitateko komunikazio-jarduerak garatzea era koordinatu, programatu, anitz eta askotarikoan.**

- **3.1.1.- Arratia 21 aldizkaria diseinatu, egin eta banatzea.**
  - Argitalpen honetan biztanleriarentzako eduki interesgarri desberdinak sartzea.
- **3.1.2.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea, biztanleriako sektore guztietara iristeko.**
  - Newsletter-a.
  - arratia.net webgunea.
  - Arratiako Topagunea plataforma.
  - Gizarte-sareak.
- **3.1.3.- Arratiako jarduera eta albisteak hedatzea eskualdeko komunikabideetan (Gorbeialde Irratia, Begitu, etab.).**
- **3.1.4.- Komunikazio Kabinetea mantentzea.**
- **3.1.5.- Mankomunitateko arlo desberdinek era aktiboan parte hartzea komunikazio-materiala egin eta hedatzeko orduan.**
  - Mankomunitateko Arlo eta Zerbitzu desberdinek blogak mantentzea.

- **3.2.- Sentsibilizazioa**

- **3.2.1.- Mankomunitateko Arloetako sentsibilizazio-materialak diseinatzea, xede-ikusleen arabera.**
- **3.2.2.- Eskola Agenda 21 sustatu, babestu eta koordinatzea eta gainerako ikastetxeetara hedatzea.**
  - Eskola Agenda 21eko urteko programak mantentzea, horiek jarraitu eta garatzeko beharrezko baliabideak jarritz.
  - Ikastetxeek Eskola Agenda 21en esparruan garatutako lanak ezagutzera ematea.
- **3.2.3.- Ingurumen-gaietako prestakuntza ematea eta sentsibilizazioa sustatzea tokiko administrazioko langileen artean.**

### ▪ **3.3.- Hiritarren partaidetza sustatzea**

- **3.3.1.- Eskola-erkidegoak tokiko eta eskualdeko iraunkortasun-prozesu eta -proiektuetan duen partaidetza sustatzea.**
  - Eskola Foroak egitea.
- **3.3.2.- Eskualdearen intereseko gaietan partaidetza-foroak egitea.**

## **• 4.- ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN** **IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK SARTZEA**

### **▪ 4.1.- Zeharkako iraunkortasun-politikak garatzea**

- **4.1.1.- Iraunkortasun Arloa mantentzea.**
  - Arratiako Udalen Mankomunitateko organigraman Iraunkortasun Arloa finkatzea.
- **4.1.2.- Urteko aurrekontuetan iraunkortasun-politikak garatzeko beharrezko baliabideak ezarri eta jartzea.**
- **4.1.3.- Mankomunitatearen eskumeneko gaitan eta, batez ere, hondakinen kudeaketan eta eraginkortasun energetikoan laguntzea eta sail arteko zeharkakotasuna garatzea.**
  - Iraunkortasun Arloak era aktiboan laguntzea hondakinen kudeaketa mankomunitatean eta Eraginkortasun Energetikoaren Bulegoan.
- **4.1.4.- Arratiako Udalei ingurumen-gaitako aholkularitza-zerbitzua ematea.**
- **4.1.5.- Ingurumen-iraunkortasunarekin lotutako jarduerak garatzea.**
  - Kanpainak: Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea, Hondakinen Prebentziorako Europako Astea, eta abar.
  - Ikastetxeetan ingurumenaren gaineko hezkuntza sustatzea.

### **▪ 4.2.- Barneko lankidetzak, koordinazioa eta komunikazioa hobetzea.**

- **4.2.1.- Sail arteko lankidetzak sustatzea, elkarren artean Mankomunitateko Ekintza Plana prestatu eta garatzeko.**
  - Ekintza Plana urtero programatzea eta ebaluatzea, Mankomunitateko arlo eta zerbitzu desberdinekin lankidetzan.
- **4.2.2.- Iraunkortasuneko Informazioa Batzordea sortzea.**

### **▪ 4.3.- Tokiko Agenda 21en kudeaketa**

- **4.3.1.- Arratiako Udalen Mankomunitateko Ekintza Plana (2013-2020) prestatu eta onartzea.**
  - Diagnostikoa egitea.
  - Lehenetsuneko jarduerak-eremuak ezartzea.

- Arratiako Udalen Mankomunitateko Ekintza Plana egitea.
- Arratiako Udalen Mankomunitateko Ekintza Plana onartzea.
- **4.3.2.- Ekintza plana garatzea, kontrolatzea, jarraipena egitea eta urtero programatzea.**
  - Ekintza Plana kudeatzea, MUGI 21 tresna informatikoaren bidez.
  - Udalsarea 21eko Ekintza Planen Ebaluazio eta Jarraipen Programetan parte hartzea.
  - Arratiako Udalen Mankomunitateko Ekintza Planaren garapen-maila hedatzea.
- **4.3.3.- Udalei babes teknikoa ematea Tokiko Agenda 21eko prozesuetan: Tokiko Ekintza Planak eguneratu eta garatzea, hiritarrek parte hartzea, eta abar.**
  - Tokiko Ekintza Planen ekintzak garatzeko finantziazioa bilatzea.
  - Tokiko Ekintza Planak berrikusi eta eguneratzea.

#### ▪ **4.4.- Lidergo politikoa iraunkortasunaren gainean**

- **4.4.1.- Mankomunitateko arduradun politiko guztiak Tokiko Agenda 21en prozesuan partaide bihurtzea.**
- **4.4.2.- Iraunkortasun-politikak zeharka sartzea Lehendakaritzan eta Alkatetzetan.**

#### ▪ **4.5.- Administrazioan erosketa eta kontratazio publiko berdea sustatzea**

- **4.5.1.- Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Plana diseinatu eta eskualde-mailan martxan jartzea.**
- **4.5.2.- EKPBen eredia Arratiako udaletara hedatzea.**

- **5.- BIZTANLERIAREN GIZARTE-ONGIZATEA**  
**HOBETZEKO BIDEAN AURRERA EGITEA**

- **5.1.- Biztanleria guztiak orokorrean Gizarte Zerbitzu eta Prestazioetan dauden baliabide eta informazioa ezagutzen duela eta eskuratu ahal duela lortzea.**

- **5.1.1.- Mankomunitateko informazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera hedatu eta erraztea.**

- Biztanleriari orokorrean gizarte-prestazioen ezaugarriak eta betekizunak jakinaraztea.
- Mankomunitatearen webgunean informazioa eguneratzea.
- Udaleko egonaldi-ordutegiak hedatzea (udalen webguneetan, eta abar).

- **5.2.- Udalaren eskumeneko Gizarte Zerbitzuak sustatu eta garatzea, Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera**

- **5.2.1.-Gizarte-larrialdiko egoeretarako harrera-pisuak edukitzea.**

- Gizarte-larrialdiko egoeretarako harrera-pisuen proiektua egitea.
- Harrera-pisuaren proiekturako finantziakoa bilatzea.

- **5.2.2.- Menpekoak ez diren adinekoentzako zaintzapeko pisuak jartzea.**

- Adinekoentzako zaintzapeko pisuen proiektua eguneratzea.
- Proiekturako finantziakoa bilatzea.

- **5.2.3.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ordenantza berrikustea.**

- **5.2.4.- Etxebizitzarekin lotutako eskastasun ekonomikoko egoerak jorratzeko (hipoteka eta alokairua) eta lehen mailako beharrianak estaltzeko laguntza ekonomikoak esleitzea.**

- Laguntzetan aurrekontu gehiago jartzea, beharrianak gehiago estaltzeko.

- **5.2.5.- Menpeko pertsonen zaintzaileei zuzendutako programak garatzea.**

- Menpeko pertsonen zaintzaileak trebatzeko ekintza eta ikastaroak garatzen jarraitzea.

▪ **5.3.- Erkidegoko baliabideen (3. adinekoen, gazteen, emakumeen... elkarteak.) promozioan eta dinamizazioan laguntzea, izaera integratzailearekin.**

- **5.3.1.- Ikastetxeekin, eskolaz kanpoko jarduerekin, Guraso Elkarrekin, haurrentzako udal-zerbitzuekin (ludotekak, eta abar) koordinazioan aritzea.**
  - Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko koordinazioa hobetzea, eskolaz kanpoko jardueretako partaidetza areagotzeko.
  - Hezkuntza-programen garapena sustatzea, udal-ludotekeekin lankidetzan.
- **5.3.2.- Adinekoentzako jardueren urteko programazioak diseinatzeko aholkuak ematea.**
  - Adinez gora egiteagatik adinekoen taldean sartzen diren pertsonen partaidetza handiagoa sustatzea.
  - Erretirora egokitzeko programak garatzea.

▪ **5.4.- Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen berriazko programak garatzea.**

- **5.4.1.- Gizarte-ortuen proiektuak garatzea.**
- **5.4.2.- Langileak trebatzeko programa garatzea (gaitasunak, ohitura pertsonalak, eta abar).**
  - Informazioaren teknologia berrietarako hastapen-programak garatzea.
  - Baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako enplegua bilatzeko programak.
- **5.4.3.- Erkidegoko baliabide publikoen (liburutegiak, kirol-instalazioak, eta abar) hurbilketa eta erabilerarako programak garatzea.**

▪ **5.5.- Erakunde arteko eta erakunde barruko lankidetzak hobetzea**

- **5.5.1.- Mankomunitateko gainerako arlo eta zerbitzuekiko (berdintasuna, iraunkortasuna, etab.) lankidetzak hobetzea.**
- **5.5.2.- Lanbiderekiko lankidetzak hobetzea.**
  - Lanbidetako lan-orientatzaileekin aldizka koordinazio-bilerak izatea.
- **5.5.3.- Osakidetzarekiko lankidetzak hobetzea.**
  - Osakidetzako haur-psiatriako, pediatriako eta medikuntzako zentroarekiko koordinazioa sustatzea.

## ▪ **5.6.- Arratian boluntario-lana garatzea**

- **5.6.1.- Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritzea boluntarioak trebatzeko kanpainetan.**
- **5.6.2.- Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritzea: "Ikasi eta Jolastu" eskola-arrakastako programa.**
- **5.6.3.- Adinekoentzako Hurbiltasun eta Laguntza Programa garatzea, Gurutze Gorriarekin lankidetzan.**

## ▪ **5.7.- Babesik gabe (maila arin edo neurtuan) dauden adingabeen kasu guztiak jorratzea, gizartean eta hezkuntzan parte hartzeko programaren bidez**

- **5.7.1.- Banakako esku-hartzea babesteko programak garatzea.**
- **5.7.2.- Familiako esku-hartzea babesteko programak garatzea.**
- **5.7.3.- Taldeko eta erkidegoko esku-hartzea babesteko programak garatzea.**

## ▪ **5.8.- Osasuna sustatzea eta drogomendekotasuna prebenitzea.**

- **5.8.1.- Zeharkako programen garapena mantentzea, eskola-orduetan, osasunaren promozioari, drogomendekotasunen prebentzioari, sexualitateari eta abarri buruz, eta ikastetxeen lankidetzan eta inplikazioa hobetzea.**
- **5.8.2.- Guraso Eskolaren Programa urtero garatzen jarraitzea, partaidetza-maila altuagoa sustatuz.**

**• 6.- ARRATIAN EMAKUME ETA GIZONEN  
BERDINTASUNA SUSTATU ETA INDARTZEA,  
BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN,  
JABEKUNTZAREN, GIZARTE-ANTOLAKUNTZA  
ARDURATSUAREN ETA GENERO-INDARKERIAREN  
KONTRAKO BORROKAREN BIDEZ**

**▪ 6.1.- Berdintasun-egiturak sortu eta mantentzea**

**• 6.1.1.- Berdintasun Planaren iraunkortasuna bermatzea.**

- Urteko Gobernu Plana ezartzea, Berdintasun Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko.
- Mankomunitateko plana eta udalen jarduerak garatzeko jarraipen, koordinazio eta lankidetzako egiturak egokitu, sortu eta formalizatzea.
- Berdintasun Zerbitzu mankomunatuak sortu eta mantentzea.

**▪ 6.2.- Berdintasun-neurri orokorrak ezartzea.**

**• 6.2.1.- Mankomunitateak berdintasunarekin duen konpromisoa hedatzea.**

- Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Planeko jarduerak eta konpromisoa langileen, udalen eta hiritarren artean hedatzea.
- Mankomunitatearen berdintasun-konpromisoa ikusaraztea, berdintasunaren aldeko munduko eta nazioarteko kanpaina guztietan parte hartuz.
- Udal-planekiko koherentea den plan mankomunatuaren ezarpena sustatzea.

**• 6.2.2.- Berdintasun-politikak sistematizatzea eta zeharka sartzea.**

- Berdintasun-politikak zeharka sartzea Lehendakaritzan eta Alkatetzetan.
- Urteko aurrekontuetan beharrezko baliabideak jarri eta hornitzea, berdintasun-politikak ezartzeko.
- Lehendakaritzako eta alkatetzetako agirietan hizkuntza eta irudi ez sexistak berrikusi, egokitu eta sistematizatzea.
- Egindako jardueretan sexuaren aldagaia jaso eta tratatzea.
- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako ordenantza egin eta onartzea.

**• 6.2.3.- Genero-ikuspegia egokitzea.**



- Diagnostikoetan identifikatutako gaietan langile tekniko eta politikoentzako prestakuntza-programa ezartzea.

### ▪ **6.3.- Emakumeen jabetasun pertsonala hobetzea.**

- **6.3.1.- Emakumeen autonomia fisiko eta bizi-kalitatea hobetzea.**
  - Aldizka jaso eta aztertzea plantillaren datuak, sexuaren arabera bereizita, generoari buruzko aldagaiekin, eta sarbidea, garapena eta iraunkortasuna hobetzeko ekintza estereotiporik gabeak ezartzea.
  - Arratiako emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasun-maila adierazten duen "EqualX Comarcas" genero-berdintasunaren indizearen inguruan herritarrentzako hobekuntza-proposamenak ezartzea eta sei adierazleak aztertzea.
  - Biztanleriak, eta, batez ere emakumeek teknologia berrietarako duten sarbidea sustatzea.

### ▪ **6.4.- Baliabide ekonomiko eta sozialen sarbidea eta kontrola hobetzea.**

- **6.4.1.- Emakumeen enplegu eta promozio profesionaleko baldintzak hobetu eta sarbidea sustatzea.**
  - Genero-ikuspegia sartzeko tokiko araudian eta horren jarraipena egitea, 4/2005 Legearen pean emandako kontratu, hitzarmen, diru-laguntza eta laguntzei dagokienez.
  - Genero-perspektiba sartzeko nazioarteko lankidetzarako laguntzetan.
  - Emakumeen kultura ekintzailea sustatzea, bereziki, turismo-zerbitzuaren sorreran, merkataritza-jarduera berrietan eta tokiko enpresen garapenean.
  - Emakumeentzako informazio, orientazio eta prestakuntzarako programak garatzea, lan-merkatura sartzeko orduan erraztasunak izan ditzaten.

### ▪ **6.5.- Emakumeen partaidetza soziopolitiko sustatzea.**

- **6.5.1.- Emakumeen elkarte-mugimendua eta emakumeek elkarte-mugimenduan duten partaidetza sustatzea.**
  - Genero-ikuspegitik emakumeek egindako jardueretarako diru-laguntzak berrikustea, berdintasunaren promozio-irizpideak ezartzeko.

- **6.5.2.- Emakumeek politikan eta gizartean duten presentzia sustatzea.**
  - Beste herri batzuekin trukean aritzeko eta senidetzeko genero-irizpideak ezartzea.
  - Emakumeen jardueretarako lokal bat eta Arratiako emakume-sarearekiko topagune bat erraztea.
- **6.5.3.- Emakumeek erabaki politiko, sozial eta ekonomikoetarako duten sarbidea hobetzea.**
  - Udalbatzaren, gobernu-taldearen eta plantillaren osaera parekidea sustatzea (sexu bakoitzaren % 60 eta % 40 arteko ordezkartza), baita herritarrei eskaintzen zaizkien bitartekoetan ere.

**▪ 6.6.- Denboraren erabilera berriak eta erantzukidetasuna hobetzea.**

- **6.6.1.- Denboraren erabilerak berrantolatzea.**
  - Bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko neurrien eta udaletako eta mankomunitateko giza talde, plantilla eta gobernuarentzako erantzukidetasunaren plana garatu eta hedatzea.
  - Mankomunitateak edota udalek antolatutako jardueretara doazen gurasoentzako uztartze-neurriak ezartzea.

**▪ 6.7.- Genero-indarkeriaren biktimentzako arreta.**

- **6.7.1.- Berehalako informazioa eta arreta.**
  - Emakume erabiltzaileen beharrianak indarkeria matxistaren arretarako ezarritako zerbitzu eta baliabideetara bideratzen direla planifikatzea.

**▪ 6.8.- Genero-indarkeriaren gaineko koordinazioa.**

- **6.8.1.- Erakunde arteko eta erakunde barruko lankidetzak sustatzea.**
  - Zerbitzuen erabiltzaileen arreta hobetzeko Erakunde arteko Koordinazio Protokoloa garatzea.
  - Erakunde arduradunekin koordinazioa garatzea: Ertzaintzarekin, Epaitegiarekin, Osakidetzarekin. Baita Aldundiarekin, Eudelekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ere.

▪ **6.9.- Berdintasunaren gaineko prebentzioa sustatzea.**

- **6.9.1.- Eraso sexual, moral eta psikologikoen prebentzio eta arretarako gida garatzea, udaletako eta mankomunitateko giza taldearentzat.**

## **• 7.- ARRATIAKO SEKTORE ETA TALDE GUZTIENTZAKO ENPLEGU POLITIKAK GARATZEA**

### **▪ 7.1.- Eskualdeko Enplegu Plana garatzea**

- **7.1.1.- Eskualdean prestakuntza-eskaintza lehiakorra garatzea.**
  - Kualifikazio profesionalek eta lan-merkatuaren beharriaz bat egiten dutela bermatzen lagunduko duen prestakuntza-eskaintza sustatzea.
    - Eskualdean profil profesional berriak identifikatu eta aurreratzeko behatokia martxan jartzea.
    - Prestakuntzarako Sektore Planak eta Prestakuntza Programak zehaztea eskualde mailan.
  - Jakintzaren birkualifikazioa eta transferentzia babestea.
    - Enplegu-erregulazioko espedientean dauden pertsonen konpainia-zerbitzua martxan jartzea.
- **7.1.2.- Eskualde mailan lankidetzaren sistema bat ezartzea, eskualdeko enplegua babestu eta sustatzeko.**
  - Eskualdeko agenteen Konexio eta Lankidetzaren Sistema garatzea.
    - Eskualdeko baliabide guztiak sarean jarriko dituen eskualde-lankidetzaren sistema antolatzeko estrategia zehaztea, jardueraren eremu desberdinetan: ekintzaitza, prestakuntza, promozio ekonomikoa, enplegua, eta abar.
- **7.1.3.- Ekintzaitza/intraekintzaitza babestea, eskualdeko aniztasunean oinarrituta.**
  - Eskualdeko ekintzaitza-sistema sortzea.
    - Ekintzaitzarekin eta intraekintzaitzarekin lotutako zerbitzu eta baliabide guztiak sarean jartzea.
- **7.1.4.- Eskualdean garatzeko ahalmena duten sektore ekonomikoetan enplegua sustatzea.**
  - Lehenengo sektorea sustatzea.
    - Lehenengo sektorea eta landa-ingurua garatzeko Ekintza Plana zehaztea.
  - Zerbitzuen sektorea sustatzea.

## ▪ **7.2.- Enplegu Berdea sustatzea**

- **7.2.1.- Enplegu berdea sustatzeko programak garatzea, Lanbiderekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan.**
  - 2013ko Enplegu Berdearen Programa, Lanbiderena, Debegesarekin lankidetzan: Eraikin eta instalazioen mantenamendu eta kudeaketa ekoeraginkorra.
- **7.2.2.- Eraginkortasun energetikoaren eta energia berriztagarrien eremuan prestakuntza eta enplegurako aukerak bilatzea.**
  - Biomasa ekoitzi eta erabiltzeko proiektua.

## ▪ **7.3.- Prestakuntzako eta laneratzeko ekintzak garatzea, erakunde lankideekin, lanbide-zentroekin, unibertsitateekin, enpresekin...lankidetzan.**

- **7.3.1.- Erakunde lankideekiko kooperazioa.**
  - Gurutze Gorriarekin lankidetzan aritzea.
- **7.3.2.- Lanbide-zentroekiko eta unibertsitateekiko lankidetzak.**
  - Zulaibar Lanbide Heziketako Eskolarekin prestakuntza-programak garatzea.
  - EHU/UPVrekin hitzarmenak egitea, Mankomunitatean praktikak garatzeko.
- **7.3.3.- Enpresekiko lankidetzak.**

- **8.- ARRATIAKO GAZTEEI ZUZENDUTAKO PROIEKTU ETA PROGRAMEN GARAPENA**

- **8.1.- Arratiako Udal Gaztedi Programa garatzea**

- **8.1.1.- Gazteei zuzendutako urteko eta urte anitzetako proiektu eta programak egin, onartu eta martxan jartzea.**
  - Urte anitzetako programa 2013-2014.
- **8.1.2.- Gazteriaren eta Iraunkortasunaren urteko programa garatzea.**
  - Arratiako Topagunea plataforma birtuala.
    - Blog tematikoak.
    - Kirol, kultura eta aisialdirako jardueren atlasa.
- **8.1.3.- Gazteriaren eta Berdintasunaren urteko programa garatzea.**
  - Gazteriarentzako berariazko ikastaroak.
  - Tailerrak: tratu onak, emakumeen eskubideak, eta abar.
  - Lan-merkatuari buruzko prestakuntza.
- **8.1.4.- Gazteriaren eta Osasunaren urteko programa garatzea.**
  - Osasuneko Hezkuntza Proiektua ikastetxeetan.
  - Drogomendekotasunen prebentziorako prestakuntza.
  - Argitalpenak eta publizitatea.
  - Gazteriarentzako berariazko tailerrak.
- **8.1.5.- Gazteriaren eta Sozializazioaren urteko programa garatzea.**
  - "ELKAR EZAGUTU" programa.
- **8.1.6.- Gazteriaren eta Mugikortasunaren urteko programa garatzea.**
  - Arratia, Zornotza, Galdakao eta Durangoko jaietatik etxera itzultzeko autobusa.
- **8.1.7.- Gazteriaren eta Enpleguaren urteko programa garatzea.**
  - "SARTU" programa, enplegurako orientazioaren gainekoa.
  - Gazteriarentzako autoenplegurako gida argitaratzea.
- **8.1.8.- Gazteria Programa guztien urteko koordinazioa.**
  - Gazteria Programak koordinatzeko beharrezko laguntza teknikoa kontratatzea.

## • **9.- HERRITARREN PARTAIDETZA BULTZATZEA**

### ▪ **9.1.- Herritarren partaidetza bultzatzea eskualde mailan**

- **9.1.1.- Eskolak tokiko eta eskualdeko iraunkortasun prozesuetan eta proiektuetan parte hartzea bultzatzea.**
  - Eskolako foroak egitea.
  - Hezkuntza sektoreak iraunkortasunaren alde eginiko lanak ezagutaraztea eta parte harraraztea herritarrei.
- **9.1.2.- Eskualde intereseko gaietako partaidetzarako foroak egitea.**
- **9.1.3.- Herritarren partaidetza bultzatzea Arratiako Udalen Mankomunitatearen iraunkortasun prozesuan.**
  - Mankomunitateak emandako zerbitzuei buruzko gogobetetasun inkestak egitea, etengabeko hobekuntzari eusteko.
  - Herritarren proposamenak eta iradokizunak biltzea hainbat euskarritan eta bereziki teknologia berrien bidez (web orriak, blogak, telefono mugikorretarako aplikazioak, etab.).
  - Herritarren partaidetzarako foroak, informazio hitzaldiak eta herritarren partaidetzarako bestelako egitea ekintza planaren fase guztiak garatzeko: programazioa, jarraipena, ebaluazioa, etab.

### ▪ **9.2.- Herritarren partaidetza bultzatzea toki mailan**

- **9.2.1.- Herritarren tokiko partaidetzarako prozesuak sustatzea eta bultzatzea, bereziki Tokiko Agenda 21en prozesuan baitakoak.**